

Garbiketa langileen paroa eta mobilizazioak. Elkartasuna!

PATRONALA ETA ADMINISTRAZIOA BESTE BEHIN ERE ADARRA JOTZEN DABILTZA

Dakizuenetz, joan den astean Hezkuntza eta EHU garbiketa-hitzarmenaren negoziazio mahaiaren bilera izan genuen. Bilera horretan patronalak ez zuen proposamenik ekarri aurreko bileran ekartzeko konpromisoa hartu bazuen ere.

Egia esan, proposamenik ez ekartzeaz gain, **argi utzi ziguten euren jarrera: guztiz antisindikala eta hitzarmen honen negoziazioaren aurkakoa**. ISS enpresak argi utzi zuen Hezkuntza bezeroak mahai gainean greba deialdia zegoen bitartean proposamenik ez egiteko esan ziola. Horrek argi uzten digu bai **administrazio publikoak** (negotiazio honekin lotura zuzena duenak) **bai patronalak sindikatuen aurkako eta langileen oinarritzko eskubideen aurkako jarrera dutela, greba eskubidearena aurkako jarrera hain zuzen. Eta guk ez dugu hori onartuko.**

Hala ere, nahiz eta negoziazio mahaiaren astakeria horiek entzun behar izan, **sindikatuok beste behin negoziatzeko eskatu genion patronalari, eta argi utzi genuen mobilizazio deialdiak ezin dutela inola ere oztopatu hitzarmenaren negoziazioa.**

Hori dela eta, negoziatzeko borondatea erakutsi genuen beste behin, eta beste bilera bat jarri genuen azaroaren 16rako, astelehenerako. Egun honetan egindako proposamen guztiak baloratuko genituzkeela esanez. Hala ere, **patronalak azaroaren 13an, ostirala, bilera bertan behera utzi zuen.**

Argi ikusten dugu patronalak eta administrazio publikoak ez dutela gatazka honi amaiera emateko borondaterik. Beraz, sindikatuok argi daukagu gure esku dagoela hauen jarrera aldaraztea eta haiek negoziazio honetan benetan inplikatzeko. Eta horretarako bide bakarra mobilizazioena da.

Horregatik, **sektoreko langile guztiei dei egiten diegu azaroaren 19an eta 25ean egingo ditugun mobilizazioei babesa eman diezaieten. Izan ere, badakigu hori dela gure lan-baldintzak hobetzeko uzten diguten modu bakarra.**

ELA-UGT-LAB-CCOO-ESK

-  Donostiako Campusa
-  Bizkaiko Campusa
-  Gasteizko Campusa